

25 urtez, Gamon-en eredia jarraituz

* Sorgintzuloko Cristobal Gamon eskola publikoak zilarrezko ezteiak ospatzen ditu aurten. *Orain dela 25 urte inaguratu zen ikastetxea.

Cristobal Gamon erreteriar zientzilari eta letragizonak XVI. Mendean burutu zuen ikerketa lan bikaina. Bere jaiotzaren laugarren mendeurrena ospatzen zen urtean, 1973.ean alegia, haren izena daraman ikastetxea sortu zen Sorgintxulo auzoan, "zientzia eta lan intelektualaren bitartez dietenen eredu izan daitekeelako Gamon". Azken mende laurden honetan irakaskuntzan egindako lana gogoratzeko, zenbait ekintza berezi egin dira bertan.



Dударik gabe, iraganari begiradaxo bat emateko aitzakia paregabea dakar hain data bereziak, nahiz Cristobal Gamon eskola publikoko partaideak diren lagunek irakaskuntzan aurrera egiteak duen garrantzia ez duten ahazten. 73. Urteko urtarrilaren 15ean, etengabe gora egiten zuen Sorgintxulo auzoan jaiotza garrantzitsua izan zen.

"Eskola berria biztanleria gero eta ugariagoaren beharrei erantzuteko giltzarrietako bat izan zen hasieratik. Auzo berriak sortzen ari zirelako,

Erreteriar egitera sozio-ekonomiko-kulturalarekin bat zetozen zerbitzu batzuk eskatzen zituelako", esan dute arduradunek.

Gauzak horrela, oso garbi agertu nahi izan da Cristobal Gamon ikastetxeak betidanik herritarren garapenaren bultzatzaile izateko ahalegina egin duela, ingurua bere aukeren arabera hobetzen saiatuz. Gaur, berezi, bere ikasgeletatik milaka haur pasatu direla gogorazi nahi da, eta denbora pasatu ahala, adin guztietako ikasleak aritu direla bertan. "Zabalkuntza prozesu dinami-

koa izan dugu, eta erronka zein behar berriei zabalik egoteko ahalegina egin da. Ezinbesteko eskolarizazio prozesu osoa proiektu euskaldunaren bidez osatzen dugu gaur egun; irakasle eta gurasoen partehartzea garrantzitsutzat jotzen dugu gainera”.

Euskal kultura maitatu.

Gaurko Gamon jende askoren lanaren ondorioa da, eta horregatik klase jardueretan gurasoek hartutako ardura azpimarratu da esaterako. “Irakasleen antzera, aita eta amek ere hezkuntza osatuagoa lortzeko saioa egin dute, Guraso Eskolan, Liburutegi, edota euskara zein informatika ekin-tzetan, esaterako, parte hartuz, horrela ikasleei erantzun hobekak emango zaizkielakoan”, azaldu dute.

Era berean, oso positibotzat dute lagun hauek hezkuntza arlora teknologia berriek eskaintzen duten material didaktikoak ekarri izana. “Aberas-

garri da, esaterako, informatika bidezko Orixe esperientzia”. Gure proiektuaren helburu nagusia euskal kultura maitatzea da, baita teknologi berriak eta kanpoko hizkuntzak uztartzea eta barneratzea ere”, gaineratu dute.

Kasu hauetan ohi denez, 25 urte hauek ospatzeko ekintza asko antolatu dira. Hauen guztien artean agian proiekturik garrantzitsuenetako aldizkari bat kaleratu dela. “Honen bidez, era zuzen edo zeharrez gure hezkuntza proiektuan parte hartu duten guztiengana heldu nahi dugu. Etorkizunerako bultzada egiteko medio ezin hobea izango da, gaur egunetik abiatuta eta bizi izan dugun esperientziak lagunduta gainera. Aldizkarian gaur eta atzoko Gamon bilduta gertatuko zaizkigu”, jakinarazi dute.

Gauzak horrela, eskola honetako partaide sentitzen den edonori antolatuko dituzten ekintza guztietan parte hartzeko gonbit berezia egin nahi izan zaio.